

**MICAELA PORTILLA ERAIKINEAN IKERKETA
ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA**
Behin-behineko ebazpena

2015eko abenduaren 14an, Ikerketaren arloko errektoreordetzak eta Arabako Campuseko errektoreordetzak batera publikatu zuten

**MICAELA PORTILLA ERAIKINEAN IKERKETA
ESPARRUAK ESLEITZEKO DEIALDI PUBLIKOA**

Eskaeren ebaluazioa egiteko izapidea amaitu ondoren, HONAKOA ERABAKI DUTE:

Behin-behinean onartutako eta baztertutako eskaeren zerrenda Ikerketaren arloko errektoreordetzaren eta Arabako Campuseko errektoreordetzaren web atarietan argitara dadila agintzea.

Onartutako eskaeren kasuan, ikertzaile nagusiek **2016ko irailaren 1etik 13ra arte (biak barne)** laguntza hartzeko edo hari uko egiteko epea izango dute. Erabakia posta elektronikoz jakinarazi beharko dute Ikerketaren arloko errektoreordetzara mezua igorri: rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera mezua igorri: vrinvestigacion@ehu.eus

Ebazpenean aipatutako lokalaren esleipena baldintzatuta dago ikertaldeak gaur egun erabiltzen duen espazioa egitezko husteari.

Aldi berean, baztertutako eskaeren kasuan, **2016ko irailaren 1etik 13ra arte (biak barne)** epea izango dute ikertzaile nagusiek alegazioak aurkezteko. Idazkiak Ikerketaren arloko errektoreordetako Ikerketaren Gestioko Zuzendariari zuzendu beharko dizkiote.

Alegazioak paper euskarrian aurkeztu beharko dituzte **nahitaez** Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean, edo bestela, Correosen bulegoetako batean, bidalketa administratiboaz baliatuz, hau da, gutun-azal irekian eta ziurtatutako postaz hurrengo helbidera bidaliz:

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Ikerketaren Arloko Errektoreordetza (Deialdien Atala)
Errektorego eraikina
Sarriena Auzoa, z/g
48940 - Leioa (Bizkaia)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikulua zehazten dituen bidetatik at jasotako zuzentze guztiak baztertuak izango dira.

Leioan, 2016ko uztaillaren 28an


**FERNANDO PLAZAOLA
MUGURUZA**
Ikerketaren arloko errektoreordea


JAVIER GARAIZAR CANDINA
Arabako
Campuseko errektoreordea

MICAELA PORTILLA

TALDE ESKATZAILEAREN OTRI KODEA	EBILI (m2)	ESLEITUTAKO LOKALA
GIC10/134	80	2A22
GIC10/157	57	2A20
GIC10/20	93	2A14
GIC10/69	116	3A07
GIC12/113	29	3A13
GIC12/170	88	3A14
GIC12/197	29	1A09
GIC12/41	125	2A17
GIC12/61	83	3A10
GIC12/71	130	3A17
GIC12/92	140	2A07
GIC12/98	123	2A10
GIC12/86	79	1A07
Talderik gabe	-	-

Oharra: Eusko Jaurlaritzak onartutako eta finantzatutako ikertalderik gabe aurkeztutako eskaria baztertu egin da deialdiko 6.1 baldintza bete ez izateagatik.